

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4472

*EBAZPENA, 2025eko urriaren 13koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, laneko arriskuen prebentzioaren arloan arau-hauste oso astuna egiteagatik ezarritako zehapena argitaratzea agintzen duena (48.2018.11 espedientea, I482017000057305 arau-hauste akta).*

## AURREKARIAK

Lehenengoa.– Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2021eko abenduaren 16ko ebazpen bidez, Limpieza y Mantenimiento Impacto, S.L. enpresari berrogei mila bederatzehun eta laurogeita sei (40.986) euroko zehapena jarri zitzaion laneko arriskuen prebentzioaren arloan arau-hauste oso astuna egiteagatik. Arau-hauste hori Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 13.10 artikuluan tipifikatuta dago: «Laneko arriskuei buruzko araudiaren arabera lan-baldintzei aplikatu beharreko beste edozein prebentzio-neurri ez hartzea eta langileen segurtasuna eta osasuna arrisku larrian jartzea».

Bigarrena.– Ebazpen hori irmoa da 2025eko irailaren 18tik.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

– Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariak du espedienteaz arduratzeko eskumena, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 13.1.e) artikulua; maiatzaren 14ko 928/1998 Errege Dekretua (1998ko ekainaren 3ko BOE), eta Laneko arriskuen prebentzioaren arloan oso arau-hauste larriak egiteagatik ezarritako zigorrak argitaratzeari eta zigortutako enpresen erregistroa sortzeari buruzko azaroaren 21eko 244/2012 Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikulua (2012ko abenduaren 4ko EHAA).

Lege-arau horiek eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoak ikusirik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak, dituen ahalmenez baliatuz, hau

## EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara daitezen jarritako zehapen irmoari buruzko datuak. Hona hemen datuok:

- Sozietatearen izena: Limpieza y Mantenimiento Impacto, S.L.
- Zer sektoretan diharduen: eraikinen garbiketa orokorra.
- Identifikazio fiskaleko zenbakia: B39021217.
- Egoitza soziala: Mala Estrata 6, beheko solairua, 48012 – Bilbao (Bizkaia).

– Egindako arau-haustea: Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 13.10 artikulua: «Laneko arriskuei buruzko araudiaren arabera lan-baldintzei aplikatu beharreko beste edozein prebentzio-neurri ez hartzea eta langileen segurtasuna eta osasuna arrisku larrian jartzea».

- Zehapenaren zenbatekoa: berrogei mila bederatzehun eta laurogeita sei (40.986) euro.
- Arau-haustearen aktaren eguna: 2017-12-21.
- Zehapen-ebazpenaren eguna: 2021-12-16.
- Zehapena irmo egin zen eguna: 2025-09-18.

Bigarrena.– Agindua ematea argitaratzen diren datu horiek Laneko arriskuen prebentzioaren arloan oso arau-hauste larriak egiteagatik ezarritako zigorren erregistroan inskribatzeko, ares-tian aipatutako azaroaren 21eko 244/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari atxikita dago erregistro hori.

Ezarritako zehapenari dagozkion erregistroko datuak bost urteren buruan ezeztatuko dira, zehapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 13a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.